



## USKUÏRTZ-GAYAK

### GOIZPARĪKI EDO EBANGELIUA

EPALA—5' KUA.—QUINCUG.



¿Zer gura-dok iri egiteko? — Jaunoi, ikusteko.  
— Begiztu egik, eure ziñeskintzak gaizkatu au.

Aldi atan: Josu'k amabijak artu ebazan, eta esan eutsen: Ona Hierosolim (*Jerusalén*)'era igoten gara, ta iragafliak. Gixasemiatzako idatzi edo *eskribidu* eban gustija beteko da Baidautsae afozai emongo, ta ista edo *burla*-egingo dautsae, ta zigoftauo dabe ta txuba aufegira botako dautsae. Ta zigoftauo gero eraillo dabe; baña irugafen egunan befbixiko da. Eurak, baña, ezeben bapez uletu, ta itz onek eskutubak yakezan. Ta jazo zan, Hieritxo (*Jericó*)'ra uferatzen zala, itxuba bidonduan jezarita egotia eskalzen. Eta gixoztia igaroten aditu ebanian, zer ete-zan itandu eban. Eta erantzun eutsaen: Josu nazaretafa igazten zala.

Eta didaf egin eban, esanaz: Josu, Dabi'ren Semioi: nitzaz efuki adi. Ta aufez joyazanak akaf-egiten eutsaen ixiltzeko. Berak, baña, gero ta didafago egifen eban: Dabi'ren Semioi, nitzaz efuki adi. Ta Josu geldifu zan, eta Beragana ekafteko agindu eban.

Eta eldu yakonian, itandu eutsan: ¿Zer gura-dok iri egiteko? Ta berak erantzun eutsan: Jaunoi, ikusteko. Ta Josu'k esan eutsan: Begiztu egik, eure ziñeskintzak gaizkatu au. Ta beriafaxe ikusi eban, eta jafafuten yakon, Jaungua goresten. Eta gixozte gustijak, ikusi ebaneko, Jaungua goraidu eban.

## OSAGILERIK EZTANEKO

*Aldi-txaña.* — Notiñen batek aldi-txaña aften daunian, musuba zurbidu ta armasca gelditzen yakola, aratin jari biar da lurian edo oian lurre-luze etzunda, buruba gorputza baño gorago ezlaunkola. Onelan dagola, soñekuak nasatu, ur otzaz arpegija busti ta ospinontzija sufetara ureratu usaña artu dagijantzat.

Geure bixi-tokijak andijak eta argijak ixan biar dira, ondo gefitabak eta eguzkijari begira.

## ARATZOZTIAK

Ufetu dozug aratozte-egunak. Uñian, izparingi au urten orduko, kokomaro-jantzijak gefetan amaika gaste zorok inardungo dabe.

¡Au ifun-aldija kistafentzaf! Aldi onetan zikinkeru gustijak ufeten dira kalera. Lotsea kale-ukonduan itxi ta ofirik puango dira aratozte-egunetan amaika gaste zoro zentzumbakuiak. ¡Gixaxuak!

Oñetarikorik eztoze uste geure irakurñien artian ixango danik.

Baña ba'lego, gomutarazo gura-dautsegu, euzkeraz itxuita, Sales'tar Pantzeka Deuna'k esan ebana:

«Lenengua. — Zuk dantza-egiten zenduben artian, amaika arima ereten ziran Gaiztokiko subaz, dantzan egindako oben edo pekatubakafik.

«Bigafena. — Ordu berberan kistaf asko Jauna'ren aurian belaubikotuten ziran, gorespesak abestuten (kantetan) eta bere ontasunaz asetuten. ¡Zuk baño askozaz obeto erabilten eben astijaf!

Irugafena. — Zuk dantza-egiten zenduban artian, arima askok curen gorputzak izfen eben ludi edo mundu onetan. Amaika gixasemek neke latz eta min gafatzak jasaten (sufritzen) ebezan oian, ospitalian eta kafian. ¡O! Onek arterik ezeben, eta zuk curen erukirik bez. ¡Uste ete-doze egunen baten eztozula zeuk, eurak lez, zotin-egingo, beste batzuk dantzaketan inardungo daben artian?

«Langafena. — Geure Jauna, Neskutza geure Ama, Goizonak eta Deunak (Aingerubak eta Santubak) zeure begira dagoz, zuk zelan dantza-egiten dozun ikusten. ¡Euren tamala zure bijotza ustelkeri ofetan sartuta ikusirik!

«Boskafena. — ¡O! zeu beriau zengozan artian, aldija igaro zan eta erijotza uferatu zan! Begira onek zelan ista edo burla-egiten dautzun, eta zelan beragaz dantza-egiteko del-egiten dautzur. Dantza ofetan zeure senidien zotin eta ozu samilik ixango dira soñubaf. Dantza ori da gixaseme gustijien egizko itarkuna. Bere bidez une baten igaroten gara bixitz onetatik bestera zorigaiztodun ala zorijondunera».

Euzkeldun maite ori kistafatasuna zure asabekandik jatorfu-ta, ez egun ofetan ukatu. Gomuta-ratez aratozte-ostian autse-eguna datoñala ta egun atan Eleiza gure Amek gomutarazofen danskula autsazkuak garala ta autsetan biguritu: biar-garal.

Ez aiztu.

Emaztiagandik ikaraz ta bildufez iges-eginda, oe-azpijan eskutau zan bein geure Astakilo gaxua.

Emaztiak, ori ikusita, beragana juan zan, itxuskija (eskobia) eskubetan eballa, esanaz:

— ¡Ut ofirik, txakuroi! ¡Aldi oe-azpifik!

— ¡Eztot gura, afayapola! ¡ñoz agindu biar dot nik neure etxian.

## ¡EZ TXARA!...

Zuk diozunez, ene euzkotara,  
Maite dezuz Aberi Ama,

Abertzalia: zuk diozunez,  
urtutzen zaudet Aberi-maitiez.

Zuk Euzkera, ala diozu,  
Biotz-erdiyan gordetzen dezu.

Bañan ikusten danez, aberiagatik  
Zuk ez dezuz galduko lorrik.

Eta agertzen danez, zure mingaña,  
Nekatzen duana, ez da Euzkera.

Azaltzen danez, Euzkeragatik  
Ez dezuz artzen, ez, nekerik.

Aizu, seme nagiya, beti oi-zabilz  
Zure Ama gaxuari leunkeriz.

Asko maite dezula diozu esaten  
Ta bere bizilagatik etzera sayatzen.

Zure burua beti ongi maniatzen  
Ta zure Ama gaxua apoitez uiltzen.

¿Eta asko maite dezula esaten,  
Lotsagabe ori, zera ausartzen?

Tene.